

***Amaitu berria da Euskal Autonomi Elkarteko herri administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko lehen plangintzaldia. Artikulu honetan plan horren alderdi batzuk aztertu ditugu: bate-tik, plana bera nola anto-latu eta garatu den, eta bestetik plan horretan murgildurik egon diren jendeek (agintari, langile, sindikatu edo hizkuntz normalkuntzako teknika-ri) nolako jokabidea izan duten. Gainera, datozen urteotan euskarari administrazioan zabaldu beharreko bideak azaltzen dira, eta munduan zehar alor askotara hedatua dagoen printzipioa eskatzen da Euskal Herriko hizkuntz politikarako: think global, act local.***

## **EUSKARAREN NORMALKUNTZA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO HERRI ADMINISTRAZIOETAN: KRONIKA BAT ETORKIZUNARI BEGIRA**

**Joxean Amundarain  
Gotzon Egia**

*Hizkuntz normalkuntzako teknikariak. Gipuzkoako Foru Aldundia*

### **AITZIN SOLASA**

Eusko Jaurlaritzak duela bost urte jarri zuen abian Euskal herri administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintza.

Ez gara hasiko plangintza horren oinarrian egon diren hainbat elementuri buruz eztabaidatzen (sartu beharko lirakeen erakunde eta sail guztiak sartu ote diren plangintzan, hizkuntz eskakizunen euskara maila egokia ote den, etab.), lehendik ere aldizkari honetan bertan horri buruzko artikuluak argitaratu baitira. Horren berri nahi duenak jo beza, beraz, aurreko aleetara.

Era berean, ez da idatzi honen gaia izango azken bolada honetan heldabideetan izan dugun eztabaida koantitatiboa; hau da, hizkuntz eskakizunak egiaztatu beharko lituzketenen % 90 edo % 50ek kreditatu ote dituzten. Garrantzitsua izanik subjektibo samarra dela iruditzen

zaigu eta, seguruenik, ez da prozesu honetako gairik funtsezkoena. Gure asmoa, bost urte hauetako martxari buruz dugun iritzia eta etorkizunerako gure ikuspegia plazaratzea da.

## HERRI ADMINISTRAZIOETAN, LEHENENGOZ

Autonomi Elkartean administrazioan euskara normaltzeko izan dugun lehen plangintza izan da hau. Argibide bat: Jaurlaritzak onartutako dekretu, agindu eta gainerako lege-xedapenetan *euskararen erabilera normaltzeko plangintza* deitzen diote; hizkuntz eskakizuna, ordea, gaitasun maila baten adierazle da, inoiz ez erabilera maila batena. Alegia, hizkerak bestela adierazten badu ere, ez da erabilera sustatzeko plangintza bat izan, langileen euskarazko gaitasuna sustatzekoa baizik.

Hala ere, ezin da ukatu hizkuntz eskakizuna elementu garrantzitsua izan dela euskararen normalkuntzarako bidean. Besteak beste, balio izan du administrazioan sartzeko deialdietan eta barruko promozio eta leku-aldaketetan euskara maila bat eskatzeko edo euskara meritu izateko.

Ezin dugu ahaztu 1989 eta 1990 urteetan argitaratutako arauak baino lehenago Espainiako gobernuak ia sistematikoki jotzen zuela auzitara euskarazko edozein maila eskatzen zuten deialdien aurka. Azken bost urteetan ia ez da horrelakorik gertatu, eta ziurtasun juridiko honek liskar eta istilu gutxiago ekarri digu. Gai honen garrantziaz jabetzeko nahikoa da 80ko hamarkadako administrazioeko zuzenbideko argitarapenak aztertzea eta gaurkoekin erkatzea.

Behar bada, azken urteotako administrazioan sartzeko deialdietan eskatu den euskara maila ez da behar adinakoa izan; baina ez da bakkarik administrazioaren ardurak izan; aurrerago ikusiko dugun moduan beste batzuek ere badute horretan zer esanik.

Gure aburuz, hasieratik gauzak presaka samar egin ziren, inprobisazioa handi samarra izan zen. Pentsa ezazue, duela gutxi arte administrazioaren barruan ere ez genekiela zehazki plangintza noiz hasi eta noiz bukatzen zen. Zaila da gauzak ondo egitea horrelako oinarritzko gauzetan huts egiten bada.

Horrelako plangintza bat martxan jartzen denean, eta batez ere lehen aldia baldin bada, gainerako administrazioei aldeztu aurretik garaiz eman

---

**«Alegia, hizkerak bestela adierazten badu ere, ez da erabilera sustatzeko plangintza bat izan, langileen euskarazko gaitasuna sustatzekoa baizik»**

---

**«Ezin dugu ahaztu 1989  
eta 1990 urteetan  
argitaratutako arauak  
baino lehenago  
Espainiako gobernuak  
ia sistematikoki jotzen  
zuela auzitara  
euskarazko edozein  
maila eskatzen zuten  
deialdien aurka. Azken  
bost urteetan ia ez da  
horrelakorik gertatu»**

behar zaie horren berri zehatza eta prestatzeko astia utzi. Zerbaitek huts egin zuen, ordea, eta 1990eko uztailean, plangintzaldia hasten omen zenean, artean administrazio asko eta asko lanpostu zerrendarik gabe zegoen; hau da, lanpostuei hizkuntz eskakizuna atxikitze oinarritzko tresna falta zuen. Udal askotan plangintzan urte bete, bi edo hiru urte beranduago sartu ziren, eta horrek asko baldintzatu zuen ondorengoa; korrika eta muturka lan egin behar izan dute udal ugari-tan.

Bigarren plangintzaldi honetan ez dirudi gauzek hobera egingo dutenik, artikulua idazteko garaian ez baitakigu oraindik, ofizialki be-deren, nondik nora jo beharko dugun.

#### **UDALEN AUTONOMIA DELA ETA**

Plangintza honen beste oinarrietako bat administrazio bakoitzaren autonomia errespetatzeko printzipioa izan da. Erakunde bakoitzak erabaki du zein hizkuntz eskakizun izango duen lanpostu bakoitzak eta hauetatik zeintzuk izango duten derrigortasun eguna. Nahiz Eusko Jaurlaritzak bere iritzia ematerik izan, erabakimena funtsean uda-len esku gelditu da.

Ez dugu, jakina, udal autonomiaren printzipioa zalantzan jarri nahi, baina hainbestearainokoa izan da begirunea, ezen 50 udal plangintza-tik kanpo geratu baitira. Ez zaigu txantxetako datua iruditzen, ezta gutxiestekoa ere, Euskal Autonomi Elkarte bost udaletik bat plan-gintzaz kanpo geratu baita. Hizkuntz kontuetan, administrazioaren gainerako ihardun eremuetan bezala, udal autonomiak bere mugak izan behar ditu, noski, eta agintari batek arauak betetzen ez dituenean bere gain hartu behar du ardura hori; eta gizarteak eskakizunak eska-tzeko bitartekoak izan behar ditu.

Gauza bera pentsa daiteke zenbait administrazioetako erakunde auto-nomiadunei buruz, asko eta asko geratu baitira plangintzaz at arrazoi argirik gabe.

#### **SINDIKATUEN JOKABIDEAZ**

Plangintza honi buruz behin baino gehiagotan esan izan da sindika-tuekin hitzartu gabeko plangintza bat izan dela. Hori, noski, kalte-rako izan da. Horrelako plangintza bat abian jartzeko ez da nahikoa

alderdi politiko askoren adostasuna; oso garrantzitsua da sindikatuak eta gainerako agenteak ere bat etortzea.

Hala ere, horrek ez du zurriz, gure ustez, sindikatu batzuek plangintza hau beraien komenentzirako erabili nahi izatea. Esan nahi baita administrazioan indarrik handiena duten sindikatuak jokabide oportunistak izan dutela maiz. Behin baino gehiagotan, administrazioan sartzeko deialdietan euskara eskatzeko traba ez dira izan ez administrazioa, ez lege-arauak; sindikatu batzuek baizik. Askotan sindikatuak izan dira euskaltegietan jarrera txarra izan duten langileen edota euskara ikasi nahi izan ez dutenen defendatzaileak sutsuenak. Inork ulerbide laburregia baldin badauka, eta nahasketabiderik egon ez dadin, argituko dugu ez garela UGTri buruz bakarrik ari. Oro har, langile soilek hizkuntz eskakizuna bete edo euskaraz ikasteko jarrera aldekoagoa izan dute, sindikatu gehienek baino.

---

**«Ez dugu, jakina, udal autonomiaren printzipioa zalantzan jarri nahi, baina hainbestearainokoa izan da begirunea, ezen 50 udal plangintzatik kanpo geratu baitira»**

## **INFORMAZIOA ARGI ETA GARBI**

Joan den bost urteotan zehar informazio falta handia egon dela iruditzen zaigu. Halako plangintza egiten denean oso garrantzitsua da partaide guztiak gauzak oso garbi izatea: zer ari garen egiten, zergatik ari garen horretan, nork zer egin behar duen, nork zer arduratu duen, zeintzuk izango diren helburuak eta bitartekoak eta zeintzuk izango diren plangintzaren ondorioak (baita plangintza betetzen ez denean ere). Urteotan ez dugu horrelakorik izan; alderantziz, berri, zurrumurrurru, esames... gehiegi egon da eta honek langileengan nolabaiteko ego-neza sortu du.

Gure ustez informazio kontuetan benetako politika bat izan balitz ez litzateke gertatuko goian aipatu duguna, ez eta komunikabideek eragindako nahasmendua ere. Hitz bitan esateko harreman publiko, marketing... kontuetan huts egin da. Honekin batera, aztertu beharrekoa izango litzateke plan horren kontrako erasoak izan direnean Eusko Jaurlaritzak eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak ez ote duten lotsati eta uzkurregi jokatu.

## **PLANAREN HEDADURA ETA AGINTARIEN JARRERA**

Akatsen arteko kontabilizazioan sartu behar da, baita ere, Espainiako Administrazioak Autonomi Elkartean dituen egoitzetan gertatutakoa: dirudienez, horientzat ez da arau ez hizkuntz eskakizunik izan. Erda-

---

**«Esan nahi baita administrazioan indarrik haundiena duten sindikatuek jokabide oportunistan izan dutela maiz. Behin baino gehiagotan, administrazioan sartzeko deialdietan euskara eskatzeko traba ez dira izan ez administrazioa, ez lege-arauak; sindikatu batzuk baizik»**

ra bakar eta lasaian jarraitu dute. Azken bolada honetan INEMeko bulegoetan gertatu diren lotsagarrikeriak horren lekuko dira.

Beste alde batetik, iruditzen zaigu oro har administrazioako agintariek ez dutela hau beren plangintzat hartu. Agintarien aipua egiten dugunean ez gara soilik hedabideetan ageri diren sailburu, diputatu eta antzeko politikari ezagunei buruz ari; administrazioan badaude hain ezagunak ez diren kargu politikoak, zuzendariak, zerbitzuburuak ... eta beraiek dira hein handi batean erakundeen martxa daramatenak. Hau da, badirudi plangintza hau euskarako zerbitzu, atal ... eta antzekoen asmakizuna izan dela eta gainerako arduradunek jasan egin behar izan dutela nola edo hala. Euskarazko ikastaroetara joan ez diren langile asko beren nagusien (zuzendari, zerbitzuburu ...) *babesarekin* geratu dira lanean.

Gai honetan argigarri samarra da Hizkuntz Politikarako Sailordetzak (HPS) plangintzaldiaren amaieran *Euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren ebaluazioa euskal herri-administrazioetan* izenarekin argitaratu duen txostena. Txosten hau idatzi aurretik galdera sorta bat banatu zuten administrazioen artean hizkuntz eskakizun bat bera ere egiaztatu ez duten herri langileen egoeraren diagnostia egiteko. Galdeketa horren emaitzak aipatu txostenean ageri dira eta jaso dituzten erantzunen arabera % 42,06k ez omen du egiaztatu hizkuntz eskakizunik erakundearen funtzionamenduan izan diren arazoengatik (lan handia eta ordezkorik ez, berandu onartu dutelako hizkuntz plangintza ...). Beldur gara funtzionamendu arazo horien atzean askotan goi karguen interes eza eta utzikeria ez ote dagoen.

Lehen adierazi dugun moduan, horrelako plangintza batean argi izan behar da zein den bakoitzaren erantzukizuna eta zein ondorio dituen plangintza ez betetzeak edo traba jartzeak. Era berean, ezin dugu ahaztu euskararen normalkuntza guztion partaidetzarekin baino ez dela lortuko; administrazioako atal guztiak inplikatzeari lortu ezean, alferrik izango dira ahaleginak.

## **LANGILEEN JARRERARI BURUZ**

Azken bolada honetan zenbait hedabidetan azaldutako berriei kasu eginez gero, badirudi plangintza hau herri langileen aurkako zerbait izan dela eta langile hauek erabat oldartu direla plangintzaren aurka. Guk ezagutu duguna, ordea, ez da horrelakoa izan.

Egia da zenbait langilek ez duela plangintzan sartu nahi izan (batzuk garbi adierazi dute hori, beste batzuk ahal izan dituzten trikimailu guztiak erabili dituzte); egia da zenbait langileren kasuan plangintza hau mehatxu handi samarra izan dela eta izango dela beraien karrera administratiboan; baina guk, oro har, euskara sustatzeko plangintza baten aldeko jarrera egiaztatu ahal izan dugu langileen artean. Horren erakusle derrigortasun datarik izan gabe urtero eskolaratu diren langileak edo beharrik izan gabe hizkuntz eskakizunen bat egiaztatu duten langileak dira.

Are gehiago, plangintzaldian zehar erakundeek trakeskeria asko eta asko egin dute, maiz ez dute eskolaratu diren langileentzat ordezkorik bidali eta langileek eguneroko lana ordu gutxiagotan egin behar izan dute (zenbat halako!), baina egoera hauek jasan dituzten askok egiaztatua dute dagoeneko zegoen hizkuntz eskakizuna.

### ... ETA GEU, HIZKUNTZ NORMALKUNTZAKO TEKNIKARIOK?

Ez genuke plangintzaldiari gainera egin diogun begirada hau amaitu nahi euskarako teknikari, arduradunei ... buruz hitz egin gabe. Ezin dugu pentsatu plangintzaldiaren balizko arrakasta edo porrota bakar-bakarrik besteen ardura izan denik; geure prestakuntzak, jarrerak, adorea ... zer ikusi handia izan dute. HPSk jakinarazi duenez 265 langilek egiaztatu omen dute teknikari gaitua deritzan hizkuntz eskakizuna. Noiz ordea? Guk dakigula deialdi bakar bat izan zen hizkuntz eskakizun hori egiaztatzeke eta kopuru hori baino askoz gutxiago aurkeztu ginen azterketara. Nola eska diezaiokegu langile edo kargudun bati bere lanaldiaren zati bat euskara ikasten edo hobetzen igaro dezala, edo diren eta ez diren azterketa guztiak gaindi ditzala, gu geu ez bagaude prest azterketa bat bera ere egiteko?

### EUSKARARI BIDEAK ZABALDU

Herri administrazioetako lanpostuei hizkuntz eskakizun bat eransteak joan den lauzpabost urteetan zer ekarri duen ikusi dugu aurreko pasarteetan. Jar gaitezen orain etorkizunari begira: zein bidetan barna joango ote dira hurrengo bost urteak? Eusko Legebiltzarrerara bidalitako agirietan, lehen ere esan dugun bezala, HPSek ez du hitz larregirik idatzi horretaz; dakiguna, urria izanik ere, hedabideetan entzun edo irakurritakoa da. Asmo nagusi bat azaldu du HPSek datozen urteetarako: administrazioan euskararen erabilera zabaltzeko asmoa.

---

**«Nahasketabiderik egon ez dadin, argituko dugu ez garela UGTri buruz bakarrik ari. Oro har, langile soilek hizkuntz eskakizuna bete edo euskaraz ikasteko jarrera aldekoagoa izan dute, sindikatu gehienek baino»**

---

**«Gure ustez informazio kontuetan benetako politika bat izan balitz ez litzateke gertatuko goian aipatu duguna, ez eta komunikabideek eragindako nahasmendua ere. Hitz bitan esateko harreman publiko, marketing.. kontuetan huts egin da»**

Ez da berria fenomeno hori: gure herri-hirietan, eskolan euskaraz ari diren haur asko, jolas atarian erdaraz ari izaten dira gehienetan. *Mutatis mutandis*, hizkuntz eskakizunaren azterketa gaintitu eta «agiriaren jabe» egindako herri langile askok erdaraz segitzen du lanean, lehen bezala. Beraz, edo zerbait aldatzen da, edo euskaldunez jositako administrazio erdalduna izateko bidean gara.

Zer aldatu behar ote da, orduan? Hitz laburrez esanda, gure ustez euskararen erabilerrari bideak zabaltzeko behar zaizkio.

**Bide politikoak.** - Eusko Jaurlaritzako agintean diren hiru alderdi politikoak jarrerak gehiago hurbildu eta akordio zehatzagoetara heldu beharrean daude; gainera, hurbiltasun hori Legebiltzarrerara ere eramaten ahalegindu beharra daukate. Beste arazo sozial askotan bezala, hemen ere adostasun politikoa («Zer egin hizkuntz eskakizunik gaintitu ez duten funtzionarioekin?») baino handiagoa da gizartearen adostasun maila («Kondizio jakin batzuetan, administrazioeko langileak euskaraz jakin beharra dauka»).

**Bide instituzionalak.** - Kontu hauen eztabaida, dena dela, ez da komeni esparru politiko hertsira mugatzea. Debate soziala, handia edo txikia, badago eta horri irtenbideren bat bilatu behar zaio. Esate baterako, ulergaitza litzateke administrazioeko sindikatuekin mintzatu edo eztabaidatzeko plataformarik gabe jarraitzea, joandako bost urteetan bezala. Erabilera zabaltzeko ur sakonagoetara murgildu nahi badu, administrazio esparruko agente guztientzako azterleku eta eztabaidatoki zabala antolatu beharra dauka luza gabe.

**Antolakuntza bideak.** - Euskararen erabilera zabaltzeko asmoak askotan administrazioaren lan molde zaharkitu eta erdaltzaleen horma gogorraren kontra doaz. Modu batera edo bestera euskararen erabilera planifikatu edo programatu nahi baldin bada, lan sistemak eta antolamendua berritu egin behar dira; askotan ez dago beste biderik. Orain artean esperientzia argigarriak daude behintzat alor horretan. Hizkuntzarena bakarrik hartzen ez duen ikuspegi zabalago batez jokatu beharra dago: administrazio moderno eta berritua lortzeko helburuaren barruan dago administrazio euskaldunagoa lortzea.

**Arau bideak.** - Lanpostu jakin bat betetzeko zein hizkuntz kondizio bete behar den arautzea errazagoa dirudi lanpostu horretan ari den funtzionarioak lanean zein hizkuntzatan ihardun behar duen arautzea baino. Argi dago, mutur-muturreraino jota, ezin iritsizko esparru bat ere izan daitekeela hori, hizkuntzen erabilera lege zorrotz eta zu-

rrunez arautu nahi izatea alegia. Alabaina, itxurakeriak utzita administrazioari arau zehatzagoak eman behar zaizkio, euskararen legeak (8. artikulua) dioen printzipio lauso eta inkonkretuaz gain: administrazioaren erabaki orokorrak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko direla esatea itxurak zaintzea besterik ez da («..argitaratuko dira»). Hizkuntzen erabilera publikoaren esparruan, herri aginteek **gutxienez** eta **nahitaez** bete beharrekoak arautu behar dira argiro: **zer** egin behar den, eta **nola** egin behar den gainera.

**Hedapen bideak.** - Irudi luke administrazioaren alderdirik «lehorrean» egin dela orain arteko hizkuntz ahalegina: gobernuaren, diputazioen eta udalen bulegoetan. Bitartean, herritarren oinarri-oinarriko eskubideetatik askoz ere hurbilago diren osasun zerbitzuak bazter gelditu dira; ulergaitza, inondik ere. Esango digute: osasun zerbitzuak asko eta handiak dira, denera iritsi ezin. Jakina, hirigintza edo ur hornidura euskaraz izatea ondo dago, baina hautabideak egin behar badira, ez erizainik ez medikurik ulertuko zionik eta lo nahian negarrez itolarrian egondako haur haren adibide mingarria aurretik jarri beharra dagoela uste dugu. Aldeak alde, esandakoak berdina balio lezake baita ere Ertzaintzarako, Justiziarako edo Estatuak Euskal Herrian dituen irati-telebistetarako.

Aparteko trataera, berriz, administrazioko konfidantzazko goi karguei eman beharko litzaieke, gure ustez. Gauza bat dira hautetsiak, herriak bere bozaz hautatutakoak alegia; baina beste gauza dira agintean diren alderdi politikoek beren gisara izendatzen dituzten goi kargu, arduradun edo aholkulariak. Horiek ez ditu herriak hautatu, alderdiak baizik, eta denboraldi baterako bada ere, administrazioko *langile* izango dira. Zer justifikazio dago hautetsi ez diren kargu horiei hizkuntz eskakizunik ez jartzeko?

**Elaborazio bideak.** - Gobernuak ez luke deus handirik egingo «euskararen erabilera promozionatu» behar dela esanez. Hori nola egiten da? Nola egin dute orain arte saiatu diren udalek edo bestelako herri administrazioek? Ba al da erabilera programak moldatu, antolatu eta kudeatzeko erreferentziarik? Inon sortu al da era horretako «teknologiarik»? Nola ebaluatzen ahal dira erabilera programen emaitzak? Horra erantzun zain dagoen galdera sorta ederra.

## BATERATASUN HANDIAGOZ

Euskal administrazioek berdintasun handiagoa behar dute hizkuntz

---

**«Euskarazko ikastaroetara joan ez diren langile asko beren nagusien (zuzendari, zerbitzuburu ...) babesarekin geratu dira lanean»**



**«Azken bolada honetan zenbait hedabidetan azaldutako berriei kasu eginez gero, badirudi plangintza hau herri langileen aurkako zerbait izan dela eta langile hauek erabat oldartu direla plangintzaren aurka. Guk ezagutu duguna, ordea, ez da horrelakoa izan»**

politikaren alorrean. Herriak, eskualdeak edo probintziak ez dira denak egoera berdinean, euskaldun kopuruak eta hizkuntz-jarrerak begiratuta; hori egia da. Gainera, udalen autonomia ere zaindu beharko da esparru honetan, nork bere erabakimena gorde dezan, zer egin nahi duen eta zer egin nahi ez duen hautatzeko. Hori ere hala da.

Egoera desberdin eta udal autonomiaren atzean, ordea, askotan logikarik gabeko jokabideak ezkututzen dira: ez daiteke uler udal batzuek euskara zabaltzeko ahaleginak aurrekontuen itsulapikotik sobratutako sos apurrez hornitzea, dirubide eta ahalmen gutxiagoko beste udal batzuek askoz ere politika sendoagoa (eta garestiagoa!) duten bitartean. Hemen, bestetan bezala, udal agintean d(ir)en alderdi politiko(ar)en orientazioa, jarrera, aurretik izandako jokabidea, eta abar nagusitzen dira logika guztien gaindi..

Bateratasun handiagoaren bidea landu behar du gobernuak, gutxiengutxienez hiru alderdi hauetan:

•**Helburuetan:** administrazioen hizkuntz politikaren lehen tasun esparru nagusiak hobeki definitu behar dira. Nork bere eran edo bere hizkuntz egoeraren neurrian aplikatuko baditu ere, bide arrasto nagusi bateratuak markatu behar dira urtero-urtero: sektoreak, adin taldeak, zonak hautatu behar dira, eta lehen tasunezko iharduera esparru izendatu; horrela, ahalegin publikoak hautatutako horietara biltzen saiatu beharra dago.

•**Ekonomian:** euskararen promozio politikan erabiltzen diren dirubi-deak proportzio beretsuetan jarri behar dira administrazio publiko guztietan. Nola daiteke, esate baterako, Lasartek Eibarrek baino diru gehiago erabiltzea? Eta zenbat erabiltzen ote du Gasteizek, Barakaldok, edo Santurtzik? Udal aurrekontuan ehuneko hainbatekoa (zergatik ez, esate baterako, % 3?), edo biztanleko horrenbesteko bat (zergatik ez 3.500 pta?) izendatu edo, gutxienez, gomendatzea gobernuaren zeregina da.

•**Baliabideetan:** administrazioiko hizkuntz zerbitzuen eramolde, osaera eta zereginak oso gaizki daude definituak; hemen, nork bere gogara jokutzen du. Itzulpenak, sustapen lanak, zeregin administratiboak, denak nahasten dira. Baluke gobernuak lanik aski hizkuntz zerbitzuon panorama argitu, funtzioak ondo definitu, kategoria laboralak finkatu, eta lan esparruak mugatzen. Herri administrazioetan hizkuntz zerbitzu **homologatuak** edukitzea jokabideetan hurbilago egoteko bidea erraztea litzateke.

## IKUSMOLDE BERRIA

Hezkuntzan, herri administrazioetan, gazte eta kirol programetan, industrian, zerbitzuetan, hedabideetan... euskararen erabilera sustatzeko hartu diren erabakiak konbergenteak al dira? Inor ez dago benetan ziur esparru desberdin horietan hizkuntz politikaren aldetik egiten ari diren saioak norabide berean ote doazen.

Aitzitik, bestelako sentipena dagoela zabaldua esango genuke, baita sektore horietan lanean ari diren euskaltzaleen artean ere: noiz hemen noiz han, ez ote garen lardaskan ari.

Hizkuntz politika egiteko ikuspegi berri baten beharra ate joka daukagu. Gero eta argiago ari gara ikusten hizkuntz arazoak ezin direla bakan eta bakarka hartu: fenomeno sozial, ekonomiko eta politiko orokorragoen barruan daude, haiekin nahasi eta elkarloturik. Gaur egun, politika ekonomikoan edo sozialean hartutako erabakiek eragin handia izan dezakete euskararen etorkizunean; alderantziz ere bai: itxuraz *hizkuntz politikazko* diren erabakiek, ondorio ekonomiko edo sozialak dituzte gehienetan.

Hizkuntz politikaren hurbilbide berri horrek erabaki esparru asko hartu behar ditu kontuan, batera eta globalki. Adibidez: euskararen etorkizunera (euskaldunon egoerara) zer eragin ekar dezakete Gipuzkoako, Bizkai mendebaldeko eta Nafarroa iparraldeko herri txiki euskaldunetan gertatzen ari diren aldaketek?

Herri txiki euskaldun horien gainbehera ekonomiko eta demografiko, geldo baina etengabeak euskara hizkuntza utilitario nagusia den lurralde bakarrak azpian hartzen baditu, egungo gure *hizkuntz gotorlekua* arriskuan egon daiteke. Joera ekonomiko eta sozial horiei aurre egin nahi bazaie, eta herri txiki euskaldunak biziberritu, hari mutur ugari erabaki mataza hartu beharko da ziur asko:

- baserritik bizi ahal izatea eta ekonomia tradizionalan oinarritutako lan esparru berriak bideratu beharko dira;
- lurzoruari buruzko politika zorrotza hartu beharko da herri horiekiko, baserriak erortzen utzi eta asteburu-oporretarako bigarren etxe bihur ez daitezen;
- herri eskola tipiak itsu-itsuan isteari muga jarri beharko zaio;

---

**«Egia da zenbait langileren kasuan plangintza hau mehatxu haundi samarra izan dela eta izango dela beraien karrera administratiboan; baina guk, oro har, euskara sustatzeko plangintza baten aldeko jarrera egiaztatu ahal izan dugu langileen artean»**

---

**«Ez daiteke uler udal batzuek euskara zabaltzeko ahaleginak aurrekontuen itsulapikotik sobratutako sos apurrez hornitzea, dirubide eta ahalmen gutxiagoko beste udal batzuek askoz ere politika sendoagoa (eta garestiagoa!) duten bitartean»**

- osasun edo kultur zerbitzu deszentralizatuagoak moldatu beharko dira, kalerako joera neurrigabeari ataka jarriaz;
- bertako biztanleei edo bertan bizitzea erabakitzen dutenei bizimodua errazteko adinako onura fiskalak eman beharko zaizkie;
- herri txikietako bizimodua bideragarria izateko, udal horien esku berariazko dirubideak jarri beharko dira...

Ez da hori, agian, hizkuntz politika *berriaren* eginkizun bakarra. Badakigu euskararen etorkizuna hirietan dagoela batez ere, baina (adibide grafiko batez esanda) nekez izango da inoiz Bilbo euskaldun, Markinak ez badu euskaldun irauten. Gainera, bide hori urratua dauka dagoeneko herri txiki horietako asko biltzen dituen UEMA udalen elkar-teak; zer esatekorik izango luke, noski, horrelako zerbaitetan abiatu nahi izanez gero.

Herri txiki euskaldunak hizkuntz politikaren ikuspegi berriaren erakusle izan daitezke, baina adibide hutsa baino beste zerbait gehiago dira. Gainbeheran diren sektore ekonomikoetan edo eskualdeetan egiten dira halako lehenbesteko politikak. Ez dugu ikusten zergatik ezinezkoa den beste horrenbeste egitea hizkuntzaren esparruan. Ekologiak irakatsitako printzipioa erabiltzen hasi beharra dago hizkuntzarenean: *think global, act local*